

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Donibane Lohizune



Aurkibidea

Udalerria: Donibane Lohizune

Sarrera



Donibane Lohizune Lapurdiko udalerria da, Bizkaiko golkoko itsasertzean kokatua, Donibane Lohizuneko Kantonamenduan. Baionatik 23 bat kilometrora dago, probintziako mendebaldean. Udatiarren egonleku ezaguna da. Donibane Lohizune Urdazuri ibaiaren amaieran dago, Zokoa eta Zibururekin batera badia turistiko garrantzitsua osatuz. Udalerri hauek ditu mugakide: iparraldean, Getaria eta Bidarte; hegoaldean, Azkaine eta Ziburu; eta, ekialdean, Ahetze eta Senpere. Herriko ekonomia itsas zabaleko arrantzarekin lotuta dago. Portuan Afrikako mendebaldean eta Ipar Amerikako kostalde atlantikoetan diharduten hainbat eta hainbat itsasontzi daude. Portua Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak kudeatzen du, eta Zibururekin batera ustiatzen dute.

- **Biztanleak:** 14.900
- **Euskaldunak:** %68,37

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **9**
- Pasarteak: **27**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **26**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- IKER taldea
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak



Isidore Garmendia (1923)

Laborari etxean sortua eta hazia, lan ezberdinak egin ditu gero. Olagarro arrantzale famatua. Donibane aldatzen ikusi du.

DLO-007 Hizlari ezezaguna (1929)

DLO-008 Hizlari ezezaguna (1960)

Charles Inchauspe (1917-2013)



Laboraria. Bigarren Mundu Gerra frontean eta etxean bizi izan zuen. Soldadu zelarik ihes egin baitzuen, eta okupazioa jasan behar izan zuen, ondotik. Erromardi auzoko aldaketak ere ikusi zituen, laborari etxeetatik kanpinetara.



Hélène Legarto Jauregiberri (1925)

Haur denbora laborantxan iragan ondoan, xaia bat atxiki du luzaz bere senar zenarekin. Arrain fabriken ondoan zuten ostatua, eta garaiko giroaz oroitzapen goxoak ditu.



Jean Lizardi (1929-2020)

Laboraria izana. 2009an eginiko elkarrizketan nostalgiarekin aipatu zituen lana eta herria.

Emanuel Passicot (1881)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 32 urte zituen grabaketa egin zaitzaionean. Donibane Lohizuneko kapilaua izan zen. Euskalkia: mendebaldeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.196 eta 2.197

Albert Sein (1923-2017)



Baratzezaina izana bizi guzian; lan baldintzak nola aldatu ziren ikusi zuen. Bigarren Mundu Gerraren inguruko oroitzapenak kontatu zituen 2009an eginiko elkarrizketan. Euskaltzalea.

Mixel Zozaya (1930-2019)



Laborantxan hazia, xerri hiltzen ibilia. Herriko Etxeko langile izana: idiekin hasi karriken garbitzen, eta makinekin bukatu!

Pantxoa Zozaya (1927-2020)



Arrantzale izana, eta laboraria ere bai. Dakarrenaino joaten zen arrantzara.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Euskarazko klaseak eskolan

- **Hizlaria(k)**: Legarto Jauregiberri, Hélène
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: DLO-001/004
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:36. **Bukatu**: 00:06:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Errazkin, Aitor
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: 12 urte arte ibili zen eskolan. Berak jarraitu nahi zuen eta "eskola-emaile", irakasle bilakatu, baina etxean ez zioten utzi. Euskaraz egiteagatik ez zuten arazorik, alderantziz, euskarazko klaseak ere izaten zituzten. Irakaslea Milafrangakoa zen. Bortitza baina maistra ona. 12 urterako Donibaneko merkatura joaten zen bera baino zaldi handiagoarekin.

Transkripzioa

- Ta eskola, hor pixkat aipatu duzu, zenbat urte artio egon zira?
- Hamabi urte. Hamabi urte gabe "certificat" pasatu nuen.
- Ah, pasatu duzu...
- Ba, eta gero ni nahi nuen [...] eskola-emaile, banuen erreztasuna're e!, eskolemaile izanta. Beti oroitzen zait aita ta amek erreposta: "Ez; hemen izain duzu eskola-emaile eerra guekin".
- Antxi...
- Horra!

- Eta, eskola nola zen? [...] pentsatzen dut etxean eskola sartzen zinezela...

- Beti, beti.

- Ta eskola libro zen? Ez zen libro?

- Ba, ba! ... Guen denboran uzten gintuzten hemen, ba? Eta oiñon, guen eskolemailleak iten gintuen "décorer Basque", baakizu? Eta, nola zien eskuara nola eskribatzen zen ta denak.

- A, bon...

- Hori ba.

- Hori arraroa da, e!

- Ba... Ta Bilafrangakoa zen. "Mod Moïselle" [...]. Bortitza zen, baiñan izigarri maite nuen irakasle ona zen.

- Ta harek eman dautz..., eman zauzun erakasteko gogoia edo?

- A ba, ba, ba, ba ... Ta oiñon erran zioten /errantzioten/, beti oroitzen naiz, nik amen ahizpa bat bazen, mutxurdiña, etxean bizi zena, eta hura etorri zen ta nik erran diot: ta eskolemaillea naiz deitu, aita ta ama, ea zerin, ikuxi eta mintzatu, ta orduan ttantta etorri zen, eta galdetu zion, ba zertako ez duzue /eztuzue/ haur hau uzten? Badu errextasuna eskola-maille nahi nuela ein... Eta erran dio: "ez. Laguntza beharra dugu itxian, eta laguntza izainen da etxian horrekin. Ezen egun guziz esne partitzen ibiliko da", ta ha. Ta uai, erraten dute /errateute/ hamalau urtetan haurrek ez dutela lanian in ber; hamabi urtetan ni baiño haundigoko zalduyekin Donianen nitzen, esne partitzen. Hola erakutsi gaituzte lanian aitzen.

1.2. Heriotza hunkigarri bat Afrikan gertatua

- **Hizlaria(k)**: Passicot, Emanuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: DLO-009/001
- **Iraupena**: 0:04:16. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:16
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Duleri soldaduaren istorioa kontatzen du. Frantziatik Afrikarat igorri zuten gaztiguz. Hiltzera kondenatua izan zen eta luzaroan egon zen preso egun horri so.

Transkripzioa

Heriotze unkigarri bat Afrikan gertatia. Soldado burugaixto nehok ezin ezizko batzu baitira, hetarik bat zen Duleri Frantziatik Afrikara igorria gaztiguz. Han ere naski hemengoa hura edo ariagoa; berze frango erokerien ondotik ezin egona lotu eta gizon bat hilzer ziin: presondeiko zaina. Zeren zen soldado beehala jujatu zuten aintzindariak eta hiltzera kondenatu. Dohakabea! Luzaz egon da preso hiltzeko egunari so. Jakin, ikusten harenak egin ziila eta ooino ezin etsi. Orenak samin ahal zoazkon, eta gauak belz bakartasun lazgarri hartan Herioarekin buruz buru. Errana da eta baditake ere holakoendako loa bera zarao dela. Zorigaitz arima ezin itzulizko heineano juana diinari galdia, goortia edo hil usteldia. Zer argi nauzii ikus dezaten ilunbian halakoaren begiek. Etsitzeko da. Bainan erreka zolaaino lerratia izanik ere. dohatsu balin badauka jendetasun pindar bat; haurrian burasoetaik edo nolazpeit ikasi erlisionearen ohoitzapen den gutieneko bat. Duleri gazteik hasi zen galzen, etxeko burasoen ala herriko buruzagien larderiak on baino kalte geiao einik, berze frangok bezala

makurrerat eman ziin osoki. Adineratu eta ez hemengo soldado aitzindariak ez Afrikakoek nehork ez zezaketen harekin buutziaik ein. Oro hil nahi, bat hilzer, preso sartu zuten, jujatu, kondenatu hilzera. Ordutik zen hasi bere baitaratzen deusek ezpaitu odola freskatzen nola herioaren ikustiak hurran hurrana. Hilzera kondenatiak zenbat ere baitira hobendun urrikari ditu bihotzik diinak nola ez liuzke urrikari Jinko onak. Bizi denaz ezta sekula etsitzeko pindarretik sua fite piztia baita. Duleri gaizkian barnegi sartia zela iduri zukeen bizkitartian hilzera kondenatu eta hasi zen gogoetatzen. Bego hemendik harateko xehetasunen emaille Delmon apeza. Letra bat igorri zaudan biziki unkigarria othoi joan nindakion ikustera. Banoa behala. Agertu orduko buriaz agur eiten daut; gaixo mutikua! Hezur eta lar eina zen, beirtaria zurpil, begia zorrotz eta ezti. Urrantziarekin eskia tinkatu nakolaik ezakiin nola eakuts bere atsaina. Zeait erranahi eta bihotzak zintzurrera jauzi. Hantik harat adixkide ginen. Hilzera preparatzen da eta jin zelarik tenoria hamabi soldado han ziren harma kargatiak eskian. Ximista bat.. hamabi tiroak batian entzuten ditugu. Hobendun bazen zinez urrikiturik hil da bere lagunak aitzinian giristinoki.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Xantakotik Donibane Lohizunera eskolara oinez (DLO-001/001)

Helene Jauregiberri. Xantakon jaio zen; golfa handitu behar zutelarik Tellerira jaitsi ziren, Askaingo bidera. Donibane Lohizunera joaten ziren eskolara, 3 km-ko bidea oinez eginda. Izeba baten etxean bazkaltzen zuten.

2. Laborari denak bordariak (maizterrak) (DLO-001/002)

Xantako aldean laborari-etxe guztiak bordariak ziren (maizterrak). Jabeak kanpotarrak ziren, Tours-ekoak. Jabeak lur dohaintza handia egin zion herriari eta lur haietan eraiki dira eskolak, jolas-lekuak, igerilekuak eta abar.

3. Zaldi-karroz Donibaneko azokara (DLO-001/003)

Dena kanpainak (baserriak) ziren lehen Xantako aldean. Esnea, barazkiak eta denetik ekoizten zuten beraiek. Asteartez zen merkatua Donibanen. Zaldi-karroz garraiatzen zuten jeneroa. Etxe gehienetan horrela egiten zen. Asko garraiatu behar zenean, behiak uztartu eta gurdiz egiten zuten lan hori.

4. 6 kontserba-lantegi auzoan (DLO-001/005)

Esnea etxez etxe banatzen zuten. Langileak ziren bezeroak. Lantegi asko zen Donibanen, kontserbarenak, esaterako. Irundik emakume anitz etortzen zen trenean lanera. Fabrikak non zeuden eta zenbat langile zuten kontatzen du. Sei fabrika ziren auzoan. Sardina, antxoa, atuna... ekartzen zen Donibaneko portutik. Berak eta senarrak ostatua ipini zuten ezkondu zirenean.

5. Senarra Nevadan artzain (DLO-001/006)

Senarraren historia kontatzen du: Armendaritzekoa, 9 haurride ziren. Bat etxean gelditu eta besteak irten egin behar izan zuten, Ameriketara, Parisera

eta abar. Senarra eta haren zenbait anai artzain ibili ziren. Barnealdeko (Nafarroa Beherea) jendea zen batik bat Ameriketara joaten zena.

6. Arrantzaleen diru-banaketa, "mantta" (DLO-001/008)

Patroia eta arrantzaleak aste hondarrean tabernan biltzen ziren diru-banaketa egiteko; "mantta" esaten zioten. Diru asko mugitzen zen eta oso garai ona zen. Fabriketan ere lan asko zen.

7. Mugimendu handia eta giro ona beren tabernan (DLO-001/009)

Bazkaririk ez zuten ematen beren tabernan, baina gosariak, ogitartekoak eta edariak bai. Mugimendu handia zebilen. Goizeko bostak eta erdietan irekitzen zuten. Igande arratsaldetan ixten zuten bakarrik. Alaba bat etxean lanean hasi zitzaizenean arnasa hartu zuten. Berak maite zuen lan hura. 14 urterekin hasi zen Urruñan, izeba baten ostatuan, han ikasi zuen ofizioa. Kantua eta umore ona ziren nagusi beren tabernan.

8. 'Xanpun' bertsolariaren ezkontzan Mattin, 'Xalbador' eta 'Basarri' (DLO-001/010)

Mattin bertsolaria ere etortzen zen tabernara. Semea Heleneren alabarekin ezkontzeko proposamena egin izan zion. Manuel Sein Xanpun bertsolariaren ezkontza-bazkarian Fernando Aire Xalbadorri gertatutako pasadizo barregarria kontatzen du: bazkalondoan itsasoa ukitu nahi izan zuen, hondartzan erori eta busti. Gero, bertso, irri eta trufa.

9. 'Xanpun' bertsolaria, hargintza utzi eta arrantzara (DLO-001/011)

Xanpun hargina zen, baina hargintza utzita arrantzale hasi zen. Koinatu baten ontzian Dakarrera (Senegal) joan zen, sei hilabeteko kanpainak izaten ziren. Gogoan du haren etorrera, nola bertsoak kantatu zizkion bere emazteari irratiz, Donibaneko portura heltzear zela.

10. Industrialdea lekuz aldatu (DLO-001/012)

Industrialdea non zegoen kontatzen du. Gero Iturralde alkateak lekuz aldatu zuen. Elkarri asko laguntzen zitzaion orduan. Giro lasaia zegoen. Kantuan, musean... Ganadu merkatua ere beren etxe ondoan egiten zen, ostiraletan. Jende anitz ibiltzen zen beren ostatuan.

11. Euskal giroa ostatuan (DLO-001/013)

Edan bai, baina mozkortu-mozkortu ez hainbeste. Jendea bizikletan ibiltzen zen gehiena. Oso giro euskalduna zegoen tabernan, berek beti euskaraz egin izan dute. Gaur egun ez dago lehengo elkartasun girorik. Ostatua 1988. urtean saldu zuten, eta esan izan diete berekin eraman zutela goxotasun guztia, harrezkero ez dela gauza bera.

12. Aitari entzunez ikasi zuen kantuan (DLO-001/014)

Sakrifizioa behar da ostatua ongi eramateko. Horrela ikasi zuten eta horrela segitu. Gozatu ere egiten zuten: bezeroak kantuan aritzen zirelarik, beraiek ere bai. Kanta zaharrak kantatzen zituzten, oraingo gazteek ez dakizkitenak. Aita oso kantuzalea zen, eta hari entzunez ikasi zuen.

13. Garai hartako turismoa (DLO-001/015)

Bazen orduan ere turismoa, ingelesak eta, baina hoteletan egoten ziren. Hondartzara joaten ziren asko. Barnealdera gutxi, ez baitzen artean ia autorik. Gambetta karrika nahikoa aldatuta dago, negozio gehientsuak berriak dira. Lehendik jarraitzen dutenak zerrendatzen ditu.

14. Laborarien seme-alabak sosik ez gastatzeko (DLO-001/016)

Adan txokolategiaz dio XIX. mendekoa dela. Oso etxe ona. Baina gaztetan sos gutxi zuten eta ez zuten ia ezer erosi ahal izaten. Bazituzten karrikan lagunak, langile edo arrantzaleen seme-alabak, eta haiek dirua izaten zuten gastatzeko, zinera joateko eta abar. Baina laborarienak ez, San Martinetan errenta ordaintzeko aurreratu egin behar baitzen.

15. Dantzak eta "Euskal ezkontza" izeneko estanpa (DLO-001/017)

Fonografoa martxan ipini eta etxean edo ostatuan ikasi ohi zuten dantzan. Badira beren aitatxi edo aitarekin eman dituztenak dantzako lehen urratsak. Bera eta ahizpa herrian ibili ziren dantzan ikasten Begira taldearekin. "Mariage basque" (euskal ezkontza) izeneko estanpa zela eta, aita eraman zuen idi-orga. Anai-arreba guztiak eta aita, denak ziren festan. Prestaketan ere denek laguntzen zuten. Orain, berriz, zenbat ordaintzen duten galdetzen dute gazteek lehendabizi. Euren plazerik handiena hori zen, festa antolatzea eta egitea.

16. Bretainiara dantzara joan eta irrintzina entzun (DLO-001/018)

Begira taldearekin ibili zen dantzan. Ez zuten izaten arazorik mutilekin dantzatzeagatik. Bretainiara ere joan ziren behin. Dantzan egin zutelarik, irrintzina bat entzun zen. Hiru mutil lapurtar ziren hara lanera joandakoak.

17. Aitak eta amak anai bana galdu II. Mundu Gerlan (DLO-001/019)

Amaren lau anai soldadu joan ziren II. Mundu Gerla hasi zenean. Amatziren anaia bat hila zen lehen gerlan. Amaren beste bat bigarrenean. Aitak ere anai bat galdu zuen. Etxea triste gelditu zen gerraren ondorioz.

18. Alemanen denboran gose handia (DLO-001/020)

Isil-isilik egon behar zen alemanen denboran. Ez zen argirik piztu behar iluntzetan. Xantako auzoko etxerik onenak okupatu zituzten. Baratzekarien bila ere etortzen ziren. Gose handia zegoen. Artoa hartzen zuten etxean eta taloak egin eta jaten zituzten. Hegoaldera ere pasatzen ziren bizikletaz janari bila, preso zeuden anaiei igortzeko.

19. Juduak eta bestelako herritarrak trenean kargatzen (DLO-001/021)

Etxeko hangar handia hartu zieten alemanek zaldiak edukitzeko. Aitaxi eta soldadu austriarren arteko afera, tabakoa zela eta. Bihotzean sartuta geratu zaio nola eraman zuten deportatuta herriko jendea. Juduak eta bestelako herritarrak ikusi zituen Donibaneko geltokian trenean kargatzen, abereentzako bagoietan.

20. Presoak gerratik bueltan (DLO-001/022)

Aitak bazituen sei lehengusin (lehengusu) deportatuta, eta gerla amatu zelarik Helene egunero joaten zen geltokira, goizeko 10etan heltzen zen trenean horietakoren bat heltzen zen ikustera. Ez ditu harrezkero alemanak biziki maite. Senide batek uko egin zion aleman bat etxean hartzeari, "jumelage" (anaikidetza hitzarmen) baten karietarat.

21. Gestapokoak, itsusiak eta bortitzak (DLO-001/023)

Itsusiak eta beldurgarriak ziren SSak, Gestapokoak. Begirale eta kontrol lana zen haiena. Eta salatzaileei ordaintzea eta horrelako lan zikinak egitea ere bai, agian. Ikustekoa zen jendea arrastaka nola eramaten zuten. Mundu guztia isilik, batez ere herriko jende inportantea deportatuta eraman eta gero. Deportatuak izenak esaten ditu. Ez daki zergatik eraman zituzten. Batzuk etorri ziren eta beste batzuk ez. Gero jakin zuten zer egiten zuten juduekin.

22. Alemanenganako mesfidantza barruraino sartuta (DLO-001/024)

Austrian egon ziren turismo egiten erretiratu ondoren eta ongi hartu zituzten, baina Alemanian ez. Alemanenganako mesfidantza barruraino sartuta geratu zaio bere belaunaldiari.

23. San Martin egunean errenta ordaintzeko dirua behar (DLO-001/026)

Orain ongi bizi omen gara. Lehenago ezer gutxirekin kontent ziren. San Martin egunean errenta ordaintzeko dirua behar zen eta zerria edo txahala edo zerbait saldu behar izaten zen.

24. Helene lanean Saran eta Urruñan zerbitzari (DLO-001/027)

Urruñara joaten zen izebaren etxera ostatuan laguntzera, 14 urterekin. Urruñako eta Sarako festetan zerbitzari nola ibili zen kontatzen du. Saran gau guztia lanean jardun zuten. Oso unatuta sentitu zen eta aitari erran zion ez zela gehiago joango.

25. "Denboraz etorriko da bazter guzietan etxe eta bide izango den memento hura" (DLO-001/028)

Aitak kantatzen zuen kanta batek zioen: "Denboraz etorriko da bazter guzietan etxe eta bide izango den memento hura", eta memento hori etorria omen da. Etxeak leku guztietan, lehen laborantza-lurak ziren lekuetan. Hala ere, inguruko biztanle guztiak euskaldunak omen dira, bat salbu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com